

Iñaki Martínez de Luna

Euskal armarriaren goiburua

Z

er? “Zazpiak bat”? Ez! Horren orde, “Zenbat-buru-hainbat-aburu” proposatzen dut Euskal Herriko armarrarian jartzeko. Horixe bera da-eta, gure izaeraren markarik nagusia.

Izan ere, herri xelebrea gara. Munduko garatuenetakoen artean kokatzen garen arren, aurre-historiako tribuen antzera jokatzeko dugu sarri askotan. Begi-bistakoa da gizarte eragile gehienak ezin ados jarri dabiltzala; zatituta eta elkarri mokoka. Eztabaidagai dauden auziak txikiak izan edo potoloak izan, desadostasuna beti nagusi. Adibideak, barra-barra ditugu, berriak edo aspaldi-koak: futbol selekzioarena, abiadura handiko trenarena eta abar.

Bere-berez, iritzi ezberdinak edota kontrajarriak egoteak ez luke kezkarako motibo izan behar. Hori bera baita osasuntsua den gizarte garaikide baterako ezinbesteko baldintza: ñabarduretan aberatsa, kolore, xehetasun eta bereizgarri askokoa. Ez da kasualitate hutsa erregimen autoritarioek erabateko berdinkeria bilatu izana; gizartea eta herritarrak dimentsio bakarreko ideiatan hazi eta hezi nahi izana.

Hala ere, gure aniztasuna kezkarako motibo bihur daiteke, antzu bihurtzen bazaigu; gure arteko ezberdintasunek eta jarrera kontrajarriek gauden ataka txarrean blokeatzen bagaituzte. Eta beldur naiz puntu horretaraino ez ote garen iristen ari, ez ote dugun eztabaiden labirinto-ko irteera bilatzeko ardura erabat galdu; ez ote gauden hika-mokoka suntsigarrian murgilduta.

Gakoa da nola gobernatu, nola bideratu ditugun aniztasun eta diferentziak, benetan aberasgarriak izan daitezen. Nire uste apalean, bi gako daude horretarako: bata kulturala eta bestea politikoa.

Kulturalki ezinezkoa zaigu, gaur egun, besteen iritziei patxadaz erreparatzea, gure planteamenduen aurkakoak direnean, bereziki. Hala politikan nola egotera edo bilgune sozial eta herritar gehien-gehienetan, kontrako iritzia entzun ahal piztu egiten gara eta, besterik gabe, uko egiten diegu. Ez diegu pentsatu bakar bat ere ematen ea nolabaiteko ekarpenik egiten ote diguten ikusteko.



DANI BLANCO

Azken buruan, aniztasuna ez dugu onartzen; pairatu egiten dugu. Benetako iraultza kulturala gertatu beharko litzateke gurean, ezberdina zaiguna onartzetik lekutan gaudelako, une honetan.

Politikagintzan ere aldaketa sakona behar dugu. Jarraitu beharreko eredu berri ezin hobea da Erramun Baxokek Iparralderako egiten zuen gobernantzaren aldarrikapena, *Bat Soziolinguistika* aldizkarian: “... gobernantza (*gouvernance*) ez da gobernu (*gouvernement*). Alabaina, antolaketaren dinamikan parte hartzen dute bai gizarte politikoak, bai eta gizarte zibilak ere. Gobernu da erabakiak toki batean hartzen dituen eta egiketa beste toki batean eramaten duena. Hori da kudeantza klasikoa. Aldiz, antolaketa dinamikan erabakiak gune askotan moldatzen dira. “(...) Gaurko hiria gobernarri da, ez botere zentralizatu baten bidez, baina gobernantzaren bidez. Diskurtoak, interesak eta harremanak negoziatu behar dira, hitzarmen batera heltzeko...”.

Euskal Herria gobernarria izango da, gobernantzaren bidetik abiatzen bada eta, aldi berean, iraultza kulturala burutzen badu. (...) Horrela bakarrik joko nuke egokitzen “Zazpiak Bat” leloa; edo, pluraltasunaren izenean, “Hamaika Bat”

Ezin da argiago esan. Euskal Herria gobernarria izango da, gobernantzaren bidetik abiatzen bada eta, aldi berean, iraultza kulturala burutzen badu. Izan ere, antolamendu politiko berri hori erai-ki ahal izateko, gure kultura ere irauli beharra dugu. Horrela bakarrik joko nuke egokitzen “Zazpiak Bat” leloa; edo, pluraltasunaren izenean, “Hamaika Bat”. Baldintza berri horietara iritsi bitartean, “Zenbat-buru-hainbat-aburu” askoz egokiago dugu, gure armarrarian. ■